


2011ko hirugarren hiruhilekoan EAEko gazteen langabezia-tasak behera egin du pixka bat

Langabezia-tasa hori EB27ko gazteen tasen batez bestekoaren antzekoa da

[EUSTATEk](#) langabezia-tasei dagozkien azken datuak ezagutzera eman ondoren, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aztertu egin ditu. Datu horien arabera, 2011ko hirugarren hiruhilekoan, 16-24 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa %21,7koa izan da eta jarraiko bigarren jaitsiera izan du aurten. 2011ko lehenengo hiru hiruhilekoen batez bestekoa egiten badugu, 2010ekoa baino baxuagoa dela esan dezakegu.


Biztanleria orokorraren langabezia-tasa, aldiz, ez da jaitsi; are gehiago, 2010etik puntu bat egin du eta bertan dabil 2011 urtean..

Dena dela, EAEko gazteen langabezia-tasak biztanleria orokorrarena bikoizten du.



Bestalde, EAEko 2011ko hirugarren hiruhilekoko gazteen langabezia-tasa, [EUROSTATEk](#) Europako herrialdeei buruz ematen dituenekin konparatzen badugu (kontuan izanda Eurostatek emandako datuak abuztukoak direla eta horrela hiruhilekoaren erdiarekin bat datozela eta errazago konparatzeko modukoak izan daitezkeela), ikus dezakegu EAEko gazteen langabezia-tasa Europako batez bestekoaren (%20,9) antzekoa dela eta, edonola ere, Espainiako gazteriarena (%46,2) baino dezente baxuagoa.

Gazteen langabezia-tasak Europan eta EAEn (2011ko abuztua) (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eurostateko datuetatik abiatuta
(*2011ko ekaineko datua)